

## ETXEAN OTSO

2003/27 uztailaren 31ko Legeak bortizkeria jasaten duten senideak babesteko neurriak sortu zituen.

Zioen adierazpenetako I. puntuan familiaren barruan erabiltzen den indarkeria, eta batez ere, bikotearen barneko indarkeria gure gizartearen arazo larria dela aldarrikatzen da, eta botere publikoen erantzun osoa eta koordinatua eskatzen du. Erasotzailearen gaineko zigor neurriak, hau da, egitate bortitz berriak ekiditzeko neurriak eta, aldi berean bai zibil arloan bai gizarte mailan biktimak babesteko neurriak, edo hausgarritasun berezia gainditzeko neurriak koordinatu egin behar dira egintza osagarri batean.

Legearen II. Zioan prozedura erraza planteatzen da: ustezko erasotzailearen entzunaldia Zigor Prozedurarako Legeko 504 bis 2 atalean aurreikusitako agerraldian egiten da, beharrezkoa izango balitz, delitua izatekotan; bestela 798 atalaren arabera azkarreko judizioa edo falten epaiketa kasuetan.

2003/27 Legeak 544 ter artikulua sortu zuen. Eskaera epailaren aurrean, biktimari informazioa emateko bulegoetan, edo gizarte zerbitzuetan aurkezten da. Kasu guztietan dagokion epaileari bidali beharko zaio ahalik eta azkarren.

Lege berriarekin baliabide batzuk martxan jarri ziren: Abokatuen Bazkunean Emakumearen gaineko indarkeriaren aurkako letratu zehatzak prestatu ziren, biktimaren alde erantzun azkarrak eta zuzena emateko. Salaketa tartekatzean baloratzen da babes-teko neurriei buruzko eskaera beharrezkoa den ala ez.

Emakumearen gaineko bortizkeriak aurpegi ezberdinak, protagonista ezberdinak dauzka, baina oinarri amankomunen bat: mehatxuak “ez duzu kontatuko”, eta hasieran ahozko erasoak “emagaldua, madarikatua...” geroxeago indarrezko erasoak –bultzadak, kolpeak–. Erasotzaileak askotan laguntzaile ahaltzuak dauzka, bai alkohola, bai kokaina. Emakumeak salaketa aurkeztu baino lehen eraso ugari pairatzen du. Lehendabiziko aldiak ez du salatzen maitasuna, harridura, eta lotsa nahasten direlako. Lehenengo erreakzioa barkamena izaten da. Baina denboraren poderioz erasoak gero eta sarriago gauzatzen dira; eta betirako amodioa prometatutako pertsonak beldurra ematen du. Elkarbizitza ezinezko bihurtzen da. Edozein arrazoiengatik edo arrazoirik gabe istiluak sortzen dira. Krisialdian bikoteak indarkeria erabiliz erantzuna ematen du eta emakumea astintzen du ahulago izateagatik: “*etxean otso*”.

Auzokoei normalean ez dakite ezer. Maiz erasotzailea oso langile fina eta preziatua izaten omen da. Nahiko pertsona atsegina, hizlari ona eta dotore jantzia. Itxura oneko gizona: “*kalean uso*”.

Legearen 544 ter 4 puntuan premiazko agerraldia sartzen da. Epaileak babesteko neurriak eskatuta biktima, eskatzailea, erasotzailea, abokatu eta fiskala deitu behar ditu hirurogeita hamabi orduko epean eskaera aurkeztu denetik. Agerraldian epaileak biktima eta agresorea elkarrekin ez egotea zaindu behar du, haien artean konfrontazioa ekiditzeko. Horregatik bakoitzak bere aitorpena momentu ezberdin batean egingo du.

Emakumea lehena sartzen da epaileak galdeketa egin diezaion. Bere azalpenak amaitzen dituen senarra epaitegiko aretoan sartzen da, eskuak aske utzi eta gero, epailearen aurrean jezartzen da itaun batzuei erantzuna emateko.

Agerraldia burutu eta gero, epaileak auto baten bidez erabakiko du babesteko neurriak beharrezkoak izango diren, zeintzuk eta noiz arte iraungo diren. 544 ter 1. atalak babesteko neurriak hartzeko betekizunak zehazten ditu: gorputzeko edo moraleko osotasuna, sexu-askatasuna, askatasuna edo segurtasunaren aurkako delitu edo falta egin den frogatutako seinaleak egon behar dira; gainera biktima Kode Penaleko 153 atalean (173.2 atalera bidaltzen da) aipatzen diren pertsona izan behar da: bikotea edo bikote-ohia, elkarrekin bizi izan ez arren, ondorengoak, arbasoak, anai-arrebak, neba-ahizpak, naturaz, adopzioz, edo afinitatez, adin gutxikoak, edota ezgaiak familia barruan bizi badira. Eta biktima objetiboki arrisku egoeran egon behar da. Hiru baldintza beteta erabakia biktimaren alde eskatu diren babesteko neurriei buruzkoa izango da.

Babesteko neurriengatik senarrak bostehun metro baino gutxiago hurbiltzea debekatuta dauka, baita ere emaztearekin edozein medioz komunikatzea. Betetzen ez badu, delitu bat izango da: babesteko neurria apurtzeko delitua, Kode Penaleko 468. atalekoa, hain zuzen ere.

***Ane Martínez***